



ESKOLA TXIKIEN FESTA HANDIA BERROBIN

Ekainaren 14an izango da eta herrian jadanik prestaketa lanei ekin diete; besteak beste, Pirritx eta Porrotx izango dira 6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-03-11

VIIURTEA 1.650.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iñaki Amenabar, Jon Miranda eta Joxe Anjel Sarasola atzo aurkeztu zuten jaialdia Asteasuko udaletxean. N.URBIZU

TXOLARRE IRRATIAREN ESKUTIK HERRI KIROL JAIALDIA IGANDEAN

ASTEASU 'Kabitik plazara' ekimenaren baitan antolatu dute ekitaldia; aizkora, harri-jasotzea eta Iparraldeko jokoak izango dira frontoian 5

Bertsolar HITZA desafioaren hurrengo saioan Altzo eta Ibarra

TOLOSALDEA Helduen bertso eskolen arteko bigarren jardunaldia jokatu dute etzi Altzoko Elordi elkartearen; sarrerak agortu dira dagoeneko 7

Ondare izendapena du lapurte zituzten santuetako batek

TOLOSALDEA Berrobiko San Sebastian da, Koldo Apesteig argitu duenez 6

Ahoz aho jaialdia herriko kultur guneetan zabaltzen ari da egunotan

TOLOSA Emanaldi handiena ostiral gauean izango da Leidor aretoan 2

Ertzaintzak berriro inkomunikazioa baliatzea salatu dute

VILLABONA Manex Castrok ertzainek eurek nahi zutena esan arte torturatu zutela salatu du 4

Skunkfunk Tolosa
Kale Nagusia 21 - 23

Martxoak 12, osteguna, 19.00etan, lekitze proiektua.
Etor zaitez Tolosako Skunkfunk denda esagutzera eta lotu zure opartea!

www.skunkfunk.com | SPRING SUMMER 09
begu da 2009

PREST

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK
eterniko zarela jakinaz!

www.mondragon.edu/prest

GDI ESKOLA POLITEKNIKOA

MARTXOAK 12 - 17:30 osteguna AULA MAGNA
ARRASATE-MONDAGON Tel.: 943 71 96 29 / lgarrin@llops.mondragon.edu

MARTXOAK 28 - 11:00 larunbata AULA MAGNA
ORDIZIA Tel.: 943 88 00 63 / eurka@parielabota.org

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

APRILAK 4 - 10:00-13:00 larunbata AULA MAGNA
ORAZI Tel.: 943 71 80 09 / ogaxte@leku.mondragon.edu

APRILAK 2 - 18:00 osteguna AULA MAGNA
IRUN Tel.: 943 63 91 29 / aurtsakal@lekuoia.etsi.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

MARTXOAK 12 - 18:00 osteguna AULA MAGNA
ESKORIBATZA Tel.: 943 71 41 57 / sanra@huhesi.mondragon.edu

Autodefentsa ikastaroan parte hartzeko aukera



Larrialdi egoeretan, nola defendatu ikasteko aukera ematen du, I. GARCIA

Gizartea » Berdintasun sailak antolatuta du, eta hilaren 14an izango da Usabalen; izen-ematea oraindik zabalik dago.

ERREDAKZIOA

Udaleko Berdintasun Sailak autodefentsa ikastaroa antolatuta du. Saioa hilaren 14an, larunbata, Usabal kiroldegian izango da, eta Maitea Monroy izango da gidari.

Ikastaroan parte hartu nahi duenak aurretik izena eman beharra du. Honetarako udaletxera deitu behar du, 943654466 telefono

no zenbakira, eta Josebe Iturriozengatik galdetu. Bestela, internet bidez, berdintasuna@tolosakoudala.net helbidera idatzita egin daiteke.

Ikastaroa 10:00etan hasiko da eta arratsaldera arte izango da, bazkaltzeko deskantsuarekin. Norbaitek ezin badu ordu horretan joan, beranduago ere joan daiteke.

Josebe Iturriozek, Berdintasun teknikariak azaldutakoaren arabera, «ikastaroa oso ona da, indarkeriaren inguruko hausnarketa sakona egiten du Monroyk. Gainera, «oso garrantzitsua da emakumeek gure burua defendatzen jakitea».

Literaturan generoa eta immigrazioa jorratuz

Gizartea » Tolosaldea Garatzenek antolatuta, gai hauen inguruko lehiaketa jokatu da eta gaur banatuko dituzte sariak.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Garatzen agentziak genero eta immigrazioaren inguruko I. Narrazio Lehiaketa antolatuta zuen duela hilabete batzuk, eta gaur banatuko dituzte sariak.

Ekitaldia Topagunean izango da, 18:00etan. Honetarako, Udaltzeko Berdintasun Sailak eta Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio sailak saio berezi bat antolatuta dute Ereite elkartearekin batera. Eki-

taldian emakume batek hartuko du parte bere esperientzia zuzenezuzen kontaktuz.

Parte-hartzaileak bi taldeetan banatu dira. Alde batetik, Tolosaldean bizi diren 16 urtetik beherako neska-mutilak zeuden. Bestetik, 16 urtetik gorakoak.

Antolatzaileen hitzetan, «emakume etorkinak ez daude agerian, batez ere egoera irregularrean daudenak, ezkututzen errazak diren lanetan aritzen direnak». Hori dela eta, literatur lehiaketa honen xedea emakume etorkinek migratio prozesuetan duten protagonismoari balioa ematea da, bai atzerriko hona etorritako emakumeen historiaren bidez, baita bertatik atzerri joandakoenen bitartez ere.

Hitza oinarri duen artea zabaltzen ari da herrian

Kultura » Asvineneak antolatutako Ahoz aho jaialdia aurrera doa; ostiral gauean Leidorren izango da emanaldi handiena.

ERREDAKZIOA

Herenegun iritsi zen eskualdera Ahoz Aho, Nazioarteko Ahozkotanaren Jaialdia. Bigarren aldi honetan parte hartuko duten artista guztiak bilduko dira etzi Leidor antzokian ospatuko den gala erraldoian.

Asvinenea elkarteak kideen hitzetan «ahozkotanaren dream team-a» egongo da bertan. Ekitaldiko sarrearak kutxanetan daude salgai.



Itziar Rekalderen saioaz gozatu zuten atzo San Estebanera joan zirenek. E. E.

» AHOZ AHO JAIALDIKO HURRENGO SAIOAK

Martxoak 11, gaur

■ **Maite Franko**. 19:00etan, Urkizun, Maite Franko ariko da ipuinak kontatzen euskaraz. Antzerkigintza, bikoizketa, irakaskuntza eta literaturaren aritutakoa da. 2004 urteaz geroztik, ipuinen munduan dabil, harrez geroztik 800 saio egin ditu. Bertan, ahoz aho ibilitako ipuinak zein argitaratu berriak, jolas, asmakizun, eta framatizazioekin nahastean dira, umore, misterio eta mezu baikorrak barruan darमतatzen.

Martxoak 12, bihar

■ **Gorringo taldea**. 19:00etan, Sar-

tutasortu tailerrean, Gorringo taldeak 1728 *animalia kontu* lana aurkeztuko du. Ixabel Agirresarobe eta Iñaki Agirrezabalak hartzen dute parte emanaldi honetan. Hala inprobisatuz, 1728 animalia-aren istoriak sortuz joango dira. Ipuin teatroa dela esan daiteke ikuskizun hau.

■ **Idoia Sanchez**. Eguneko azken saioa Bonberenean izango da, 22:00etatik aurrera. Bertan izango da Idoia Sanchez ipuin kontalari tolosarra. Dagoeneko oso ezaguna da eskualdean, hainbat saio eskaini baititu. Ipuinak kontatzeaz gain, dantza, mimoa, antzerkia eta

clown-en munduan ere aritua da Idoia Sanchez.

Martxoak 13, ostirala

■ **Peio Añorga**. 19:00etan, Sartutasortu tailerrean izango da oiar-tzuar honen emanaldia. 1986an irakasle lanak alde batera utzi eta ipuinak kontatzeari ekin zion. Azken aldiak, haurrei zuzendutako saioak bakarrik egiten ditu. Euskaraz izango da saio hau.

■ Ahoz aho jaialdiko gala.

20:00etan hasiko da eta Leidor antzokian izango da. Bertan parte hartuko dute ahozkotanaren artista guztiak.

Lau film ezberdin ikusteko aukera izango da egun hauetan, Leidorren

Kultura » Bihar jarriko dira salgai martxoako zine bonuak zinemako leihatilan; apirilaren 6ra arte balio dute sarrera hauek.

ERREDAKZIOA

Bihartik aurrera salgai izango dira hilabete honetarako zine bonuak. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean erosi ahal izango dira gaur, Leidor antzokiko leihatilan. Bestalde, aseturuan, zine saioak diren garai berean eskuratu ahal izango dira. Hauek erosteko azken eguna hilaren 16a izango da. Bonu hauek bihartik apirilaren 6ra arteko balioa izango dute.

Edozein saiotara joateko balio duten bonuen prezioa 12 eurokoa da. Gaueko saioetakoena, zortzi,

eta arratsaldekoena, beste horrenbeste.

Lehen saioan, 'The Fall'

Aste honetan lau film ezberdin ikusteko aukera izango da Leidorren. Hasteko, bihar, Ahoz aho jaialdiaren baitan, eta Zine-forumaren ekimenez, *The Fall* filma izango da ikusgai 19:15ean eta 21:45ean. Tarsem Singh-ek zuzendutako lana Los Angelesen (AEB) dago kokatua, 20ko hamarkadan. Abentura filma da eta bertan, Royk, zinemaren ordezko lanak egiten dituen pertsonaia egun batean istorio harrigarri bat kontatuko dio neska bati. Honek ez du berehalahaztuko kontakizuna.

Larunbatean, 22:30ean, Sam Mendes-en *Revolutionary Road* lana izango da ikusgai. 50eko hamarkadan, Frank eta April Connecticut-eko auzo txiro batean bizi

den bikote gazte bat da. Beraien bizitza, itxuraz, bikote zoriontsu batena da. Ezkondu ostean, bi seme-alaba izan eta gero, hainbat zalantza dituzte, beraien benetako desioak betetzearenean edo ordura arteko bizitzarekin jarraitzeko hautua egitea.

Igandean, 17:00etan, haurrentzako *El lince perdido* filma izango da ikusgai. Animazio film onenaren Goya saria irabazi du Raul Garcia-ren lanak. 19:30ean Garth Jennings-en *El hijo de Rambow* eskaerak dute. Familia, maitasuna, abentura eta filmeko heroeiei egiten zaion begirada freskoa da. Bi gazte dira protagonistak, zeinek, Rambo pertsonaiaekin itsututa, filmaren bertsiotzat egitea erabakitzen duten. Asteburuko saioekin amaitzeko, igandean, 22:00etan *Revolutionary road* izango da ikusgai.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Odol ematearen garrantzia

GIZARTEA • Gipuzkoako odol emaleen elkar-tearen deiar erantzunez, urtero bezala, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan odol ateraldia egin berri dute. Ikasle, irakasle eta langileen artean, 60 lagun aritu ziren, gehie-

nak lehen aldiz, gainera. Arduradunen esanetan, ekintzaren helburua, «gazteengana hurbildu, ematea erraztu, honen garrantzia azaldu eta ekintza ezagutzera da, horrela gazteen emale kopurua gehitzeko». HITZA



ELAren eskualdeko batzarra

EKONOMIA • ELA sindikatuak Oria-Goierrri eskualdeko ordezkarien artean batzarra egin zuen atzo goizean Leidor aretoan. *Aberastusuna Banatu* kanpainaren baitan, Egoitz Iturbe ELAren eskualdeko arduradun nagusiak

eta Adolfo Muñoz *Txiki* ELAren idazkari nagusiak hitz egin zuten lan munduaren egungo egoeraz, prekaritatea azpimarratuz. Ondoren, manifestazioa egin zuten herriko kaletan barrena. ir.

Itxura «penagarria» Bidebidek Suelbat La Peña Basketen aurka

Saskibaloia • 66-59 galdu zuten tolosarrek; hurrengo partida etxean jokatuko dute, larunbatean, Centro Estudio Mikeldiren aurka.

ERREDAKZIOA

Inork gutxi espero zuten porrota jasan zuen Bidebide Ibizak Bilbon asteburuan jokatuako partidari. Saillkapenaren azpialdean dagoen talde baten aurkean 66-59ko emaitzarekin amaitu zuten tolosarrek.

Bidebide Ibiza taldekoen arabera, «penagarria» izan zen larunbatean taldeak eman zuen irudia Bilbon. Zituzten baja ugariak (Kike, Martia, Kaiet, Joseba eta Unai) «ez dira aitzakia» nahikoa jokatuako partida jokatzeko. Jokalari hauek gain, Gonzi bigarren entrenatzaileak ere falta zen taldean. Baja hauei aurre egiteko, seniorrekin bidaia ohi duten juniorrez gain Koldo Jo-

fresa Arsuaga presidentea ere joan zen. Taldeak, ordea, «ezin izan zion eginiko esfortzua garaipen batekin ordaindu».

Partida hasieratik ikusi zen segidan etorriko ziren 40 minutuetan zer gertatuko zen. Bizkaitarren erritmo geldoak tolosarrek lokartuko zituen eta aukeraren bati ikusi orduko saskia bilatuko zuen etxeko taldeak. Partida azkar batean zeregirik izango ez zutela jakitun, posio luzeak nagusitu ziren eta tolosarrek horri buelta eman ordez, erritmo berean jokatu zuten.

Nahiz eta lehen laurdenaren amaierara aurretik joan (14-15), markagailuak adierazten zuenak ez zuten garbi islatu zelaian ikusitakoa. Ezer erakutsi ez zuen etxeko taldeak partida bere eskuetan zuten eta tolosarrek ez ziren inongo momentuan partidaren jabe egin.

Behin 6-7 puntuko errenta lortuta, abantaila horretan joan zen partida osoa, tarteka bilbotarrek

aldea areagotuz eta bestetan tolosarrek laburtuz.

Hain partida «kaxkarra» eginatik, azken minutura bi puntuko desabantailarekin sartu ziren tolosarrek (60-58). Merezi ez zuten garaipen bat lortuko zutela zirudien, baina pare bat kontraerasori esker, 6-1eko partzial batekin amaitu zen norgehiagoka (66-59).

«Min egiten duen porrot horietako bat izan zen, gehienbat taldeak eman zuen irudiagatik eta aurkariek ere erakutsi zuen maila eskasarengatik. Baina saskibaloiak sorpresa triste hauek ematen ditu noizbehinka», azaldu dute.

Orain, hurrengo etxeko partidari jarraitu dute esperantza guztia tolosarrek, garaipenak esperantza baten bidea, eta tartean, Gorbeia tolosarrek postuan dagoen Centro de Estudio Mikeldi izango da. Partida, larunbat arratsaldean izango da, 18:00etan. Zaleen animoak eskertuko dituztela adierazi dute.

Tolosa hirugarren postuan, azken partidari berdindu ostean

ERREDAKZIOA

Hirugarren postuan dago lurraldeko preferente mailan Tolosa taldea iragan asteburuko partidaren ostean. Etxean jokatuako partidari 3-3ko emaitzarekin amaitu zuten tolosarrek Real Union Bren aurkakoa, eta ondorioz puntu bakarrarekin konformatu beharra izan dute, 43 punturekin.

Aurkariek azken unean berdindu zuten norgehiagoka penaltiz sarturiko gol bati esker. Atezainaren lana ez zen batere egokia izan, eta ondorioz, istiluak ere sortu ziren Berazubiko zelaian. Blanco, Balerdi eta Iñakitxok sartu zituzten golak Tolosarentzat.

Asteburu honetako partidari dagokionez, Hondarribiaren aurka jokatu dute tolosarrek hondarribiarren zelaian.

Emaitza oso onak lortu dituzte Alpino Uzturreko kirolariek

ERREDAKZIOA

Igandera arte Catalunyaoko Cerdanya eskualdeko Puigcerdan Iraupen Eskoia Espainiako Txapelketa ari dira jokatzeko, eta bertan Alpino Uzturre Elkarteak ordezkariak ari dira parte hartzen. Gainera, emaitza ezin hobekak lortzen hasi dira.

Atzo, lehenengo egunean, estilo librean eta 10 kilometroko lasterketa izan zuten eta 3 domina lortu zituzten. Ioseba Rojok, senior mailan lehenengo urtea badu ere, hirugarren postua lortu zuen. Imanol Rojo, junior mailan, irabazlea izan zen, tarte handiarekin eta Xabier Saizar ere, kadete mailan, irabazle ere izan da.

Hirutik hiru lortu dituzte, beraz, txapelketaren lehen egunean Alpino Uzturrekoek.

Laburrak

Hileroko odol ateratzea, datorren astelehenean


GIZARTEA • Datorren astelehenean, hilaren 16an egingo dute hileroko odol ateratzea Tolosan. Ohiko moduan, Kultur Etxean izango da hitzordua, eta odol-emaleen elkartetik herritar guztientzat zabaldu dute deialdia, ahalik eta jende gehien bertaratzeko helburuarekin.

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak

KULTURA • Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta gaztetxoentzako ikuskizuna izango da larunbatean Leidor aretoan. Hain zuzen ere, *Pirritx*, *Porrotx* eta *Marimotots* emantaldia izango da ikusgai. Sarrerak agortzeaz daude, beraz, bertaratu nahiz duenak azkar ibili beharko da. Leihatilan eskuratu daitezke.

Irteera antolatu du Alpino elkarteak igandera

MENDIA • Alpino Uzturre Mendi elkarteak irteera antolatu du igandera. Zarate-Ubidea da egingo duten bidea, eta tartean, Gorbeia (1.481m) eta Arralde (945m) mendiak igoko dituzte. 07:30ean aterako dira Santa Klaratik. Informazio gehiagorako, elkartearen edo 943 65 27 89 zenbakian.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ertzainek torturen bidez bi ekintza onartzera behartu ziotela salatu du Manex Castrok

Villabona » Atxilotu zutenetik mehatxuak hasi zirela dio billabonatarrek, ama atxilotuko zutela-eta esanez, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Manex Castro billabonatarrek Ertzaintzak atxilotuta eta inkomunikatuta eman dituen egunetan torturak jasan dituela salatu du eta horien ondorioz bi ekintza onartzera behartu diotela. Testigantza osatu du atxilotu zutenetik Madrilera deklaratzera eraman zuten arte. Atxilotu eta berehala hasi ziren mehatxuak, Castrok azaltzen duenez: «Kotxe batean sartu ninduten, eskuak atzean lotuta eta bi enkaputxadunen artean 'harripatu zaitugu. Orain dena esango duzu. Mangera bat sartuko dizugu ipurtzulotik. Zure ama atxilotuko dugu eta larrua joko diogu. Oso gaizki pasako duzu'. Askok urduritu nintzen».

Galdeketa egiten zizkiotela, lagun bat aurreko ziegan zegoela esaten zioten. «Zuregatik negarrez ari da», esaten zioten ertzainek Castrori, testigantzan dioenez. «Hil zaitezene nahi du. Horri ere bizia izorratzea nahi duzu? Zure errua da. Ez baduzu nahi duguna esaten... Beste hau fitxatuta dugu (beste lagun baten izena esan zuten). Bera ere izorratuta egongo da. Esan du ez zekiela non zeuden sartuta. Bai lagun alua zarela. Izorratu dadila, ezta?». Castrok gaineratzen duenez, «nik ez nekien jada zer pentsatu. Mareatuta nengoen. Ez nekien zer sinetsi eta zer ez. 'Isilik egon behar dut', pentsatzen nuen, baino geroz eta gehiago kostatzen zitzaidan. Presioa gehiegi sentitzen nuen».

Bukatzea nahi bazuen hitz egiteko esaten zioten ertzainek, bestela asko luzatuko zela. «Ezin nuen lorik egin, ez nuen jaten... Ziegan negoen denbora gutxian kolpe eta oihuen artean pasatzen nuen. Soinu bat entzuten nuen bakoitzean zutik jartzen nintzen berriro bezetoztela pentsatuz... Minuturo ari zirenean ireki, jo, sartu, oihua... Ez nekien non nengoen ezta zer ordu edo egun zen ere», gogoratzen du.

Beste gela batera eraman ondoren, «mahai gainean janaria zegoen, eta eurek nire lagunak izango balira bezala tratatzen ninduten», dio Castrok. «Tratu antzeko zerbaizen. Beraiek janaria ematen zidaten eta nik hitz egin behar nuen». Castrok gaineratzen duenez, «oraindik ez hitz egiten saiatzen nintzen, isilik egoten, baino geroz eta zailagoa zen. Argia, buruko mina, mareoa, nekea... Bazekitela zer ekintza egin nintzen, eta kontaktzen ez banien, beraiek nahi zituzten ekintzak egotziko zizki-

datela. '15 urte izan daitezke, beste 40'. Galderak errepikatzen hasiziren behin eta berriro».

Medikuaren aurrera eraman zutela azaltzen du billabonatarrek. «Esan nion psikologikoki zer presio jasaten ari nintzen. Eguna eta ordua esan zidan honek: 'Astelehena, egurdiko ordubatak'. 'Ez da posible' pentsatu nuen. Eskuak burura eraman nituen. 'Oraindik sufritu behar dudana...».

Bestek beste, galdeketa zehar zerrrenda bat erakutsi ziotela azaltzen du, «ekintza pila batekin. Bi esan zizkidaten, bestela guztiak niretzako zirela esan zuten. 'Nik badakit ez zarela zu izan, baino nori sinetsiko dio fiskalak, zuri edo niri?'. Ahots grabazioak jarri zizkidaten. Ez nintzen ni. Beraiek zioten adituek deklaratuko zutela nire ahotsa zela. Izorratu egingo nindutela. Behin eta berriro horrela. Askok beldurtu nintzen, ezin nuen argitasunez pentsatu. Guardia Zibilak zain zeudela... Azkenean esan nien bi ekintza deklaratuko nituela. Nire artean: 'Hobeto bi 30 baino'».

Azkarate: «Ertzaintzak protokoloa aplikatu du»

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaleak azaldu duenez, Castroren atxilotetan «Ertzaintzak bere garaian onartu zen protokoloa aplikatu du eta, beraz, epailearen esku daude atxilotetaren grabaketa eta dokumentu guztiak». Azkaratek gaineratu duenez, «ez Ertzaintzak ez Barne Sailak ez dute jarri oztoporik tortura eta tratu txarren salaketaren inguruan ikertu behar dena ikertzeko».

Amnistia-aren Aldeko Mugimendua Azkarateri erantzun dioenez, «tortura salaketak gezurrak baldin badira gaur bertan bideoak publiko egin ditzala eskatzen diogu. Epaileak baino, ikusi ditzala herri osoak ea tortura salaketak egia diren edo ez». Eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaleari galderak luzatu dizkiote: «Zergatik inkomunikazioak irauten duen bitartean atxilotuek ez dute aukerarik izan beraien konfidantzako abokatuarekin egoteko? Zergatik ez zaie utzi beraien konfidantzako medikuekin egoten? Tratu hain egokia izan bada nola uler daiteke Ertzaintzaren aurrean deklarazioa polizial bat sinatzea eta epailearen aurrean dena ukatzea?».

AAMk dio Azkarateren deklarazioek «torturaren errealitatearen inguruan» baino ez dutela egiten. «Luzatu gabe aipatzen dituen bidez horiek agertzen ez badira bere dimisioa aurkezteko konpromisoa har dezala eskatzen diogu».

@ Testigantza. Manex Castroren testigantza guztia: www.tolosaldeko-hitza.info



Donostian atzo egin zuten prentsurrekoaren une bat. I. GARCIA

Inkomunikazioa salatu dute

ERREDAKZIOA

Manex Castro eta Mikel Garmendia billabonatarren eta Iraitz Santa Cruz hernaniarraren atxilotuta eta inkomunikazioaren inguruko salaketa egin zuten beraien senide, herrikide, abokatu eta Amnistia-aren Aldeko Mugimendua atzo Donostian eginiko agerraldian. Ertzaintzak berriz inkomunikazioa baliatzea salatu zuten eta Castrok torturak jasan dituela salatu duela gogoratu zuten. «Ertzaintzaren helburu polizialak argiki EAJren helburu politikoei lotzen zaizkiola jakitun izanik, argi duzu EAJren erabaki politikoa izan dela

berriz inkomunikazioa eta torturaz baliatzea», adierazi eta Balzardimisia eskatu zuten.

Inkomunikazioa eta torturaren aurkako lotura «ezin ageriago» gelditu dela azaldu zuten. «Ertzainek inkomunikazioa aplikatu ez dutenean ez da inolako tortura salaketarik egon, eta hiru urteren ondoren lehen aldiz inkomunikazioa erabili dutenean tortura kasu baten aurrean aurkitu gara».

Eusko Legebiltzarrak 2006ko abenduaren 1ean espainiar gobernuari legedi antiterrorista indargabetu, Entzutegi Nazionala desegin eta inkomunikazioarekin amaitzeko eskaera egin ziola gogoratu zuten prentsurrekoan. 2007ko azaroaren 16an berriz eskatu zuela Eusko Legebiltzarrak inkomunikazioarekin amaitu eta atxiloaldia kamaraz grabatzeko azaldu zuten. «EAJ izan zen beste alderdi batzuekin batera eskaera hauen alde bozkatu zuena, beraz ulertezina da gaur Ertzaintzak pertsona bat inkomunikaturik izatea», zioten.

Bestalde, Villabonan eta Hernanin «jazarpen handiko egunak» bizitzaren ari direla salatu zuten. «Miaketak burutu dituzte eta herriko kaleak poliziaz josita daude oraindik orain».

Bestalde, Villabonan eta Hernanin «jazarpen handiko egunak» bizitzaren ari direla salatu zuten. «Miaketak burutu dituzte eta herriko kaleak poliziaz josita daude oraindik orain».

Gutunak

Manex eta Mikel askatu!!

Lehenik eta behin, une latz hautan Manex eta Mikelen familiei gure elkartasan eta babes osoa eskaini nahi diegu. Maite zaituztegu!

Zuei buruz esaten ari direnak gezurtatzeko, koadrilakoak ematen ari den manipulazioa salatu nahi dugu. Guk ezagutzen zaituztegu eta gezurra besterik ez dira esaten ari. Terrorista arriskutsuak zaretela diote, baina txiki txikitatik zuekin eskolan, futbolean, lagun artean ibili garenok, badakigu hau gezurra besterik ez dela. Sasi kazetari guzti horiek, zuek ezagutuz gona bidetako genituzke, orduan iritzia aldatuko lukete eta.

Herrian hutsune handia geratu da. Pasa den igandean Manex bahuitu zuten eta asteazkenean berriz, lau kaputxadun kotxe batetik jaitsi eta Mikel bahitu zuten. Aurten nola igoko da kategoriaz Urri-tza Mexenen golik gabe? Festetako antolakuntzan ere, bi buru eta lau esku gutxiago izango ditugu. Presoek elkartasuna helarazteko ere, Mikelen falta nabaria izango da. Eta umeetaz zer esan? Askok botako dituzte faltan zuen bion jolas eta barreak! Herriko jende heldua ere, zuen bromen zain dago tabernan pote bat hartzen!

Koadrilan berriz, zer esan? Zuek beti egoten zarete denak xixatzen eta zuen inguruan, irribarrea besterik ez da nabaritzen. Baratzera lapurtzera etortzen denak, beti alerik onenak eramaten ditut!

Azken aldiaren herrian sumatu dugun presentzia poliziala berriz, itogarria izan da. Egunero eduki ditugu kontrolak herriko sarreteretan, herrian zehar kolore ezberdinetako pertsonajeak dabilta bueltaka eta igandean bertan pasa zenak izenik ez du. Manexi elkartasuna eta babesa eskaintzeko prentsurrekoak, ezin izan ge-

nuen nahi genuen lekuan egin, dena josita baitzegoen eta egun guztian zehar, herria hartuta edukitu zuten. Asteazkenean berriz, Mikeli elkartasuna adierazteko bere etxe azpian egon ginenok, Ertzaintzaren jarrera harro eta prepotentea jasan behar izan genuen. Utzi Billabona bakean!!!

Aldi berean Manex inkomunikatuta egon den bitartean torturatu izan da. Eusko Legebiltzarrak onartutako protokoloa ez da aplikatu eta Manexen aurkako torturak ahalbidetu dira, inkomunikazio aldiaren genituen ueste okerrak bete egin dira. Gainera informazio eza ere familia eta lagunaren aurkako tortura mota bat delagogarazi nahi dugu.

Azkenik, argi eduki dezatela, beti zuekin egongo gara eta ez dutela lortuko herri honen eta zuen lagunon elkartasuna gelditzea. Manex eta Mikel, maite zaituztegu!!!

Mikel Ayestaran (WUITXU, zuen koadrilaren izenean). Villabona.

Igandeko Herri Kirol jaialdian aizkora, harri-jasotzea eta Iparraldeko jokoak

Asteasu » Txolarre irriatiak Udalaren laguntzaz 'Helduak eta gaztea, eten ez den katea' deitu diote jaialdiari.

ERREDAKZIOA

Iganderako Txolarre irriatiak *Kabitik Plazara* ekimenaren baitan herri kirol jaialdia antolatu du: *Helduak eta gaztea, eten ez den katea* deitu diote. «Helduek eta gazteek hartuko dute parte. Izan ere, helduek egindako bideari jarraitzen diete gazteek, etorkizunekoek». Herritarren gustukoa izango delakoan gonbitea luzatu zieten bereziki asteasuarrak.

Hortaz, urte askoz herri kirolean aritutakoak alde batetik eta ia hasi berriren bat ere ariko da igandekoan. Helduen artean 62 urte dituen Joxe Mendizabal eta Anjel Arrospide aizkolariek 3 metroko diametroa duen enborra ebakiko dute. 11 urte dituen Urdax Magunazelaia harri-jasotzailea marka berria ezartzen ahaileginduko da. 105 kilokoarekin saiatuko da.

Herri kirol jaialdia 17:30ean hasiko da, Asteasuko frontoian. Bertan egitea erabaki dute, orokorre-



Iñaki Amenabar alkatea, Jon Miranda Txolarre irratiko zuzendaria eta Joxe Anjel Sarasola herri kirol aditua. N. URBIZU

an, «Asteasuk herri kirolekiko lotura handia izan duelako beti». Iñaki Amenabar alkateak jarraitu du esanez «sustraietara heltzen» dietela. «Gainera, herri kirolekin lotutako apustu asko egin izan dira gure herrian eta gainera, herritarrek egindakoak askotan».

Apustuak egiteko aukera

Ikusleek apustuak egiteko aukera izango dute igandean. Bakoitzak euro bateko apustua egin dezake.

Oraingoan asmatu beharrekoa, aizkolarien probako denbora izango da. «Gehien gerturatzeko irabaziko du apustua». Asmatzailak bi lagunentzako afaria irabaziko du, Sarasola sagardotegian. Txolarre irratian bi sarrera zozketatuko dituzte. Parte hartzeko hara deitu behar da, eguerdian.

8 urte dira Txolarre euskara hutszeko irratia sortu zutela eskualdean. «Denbora honetan esperientzia pilatu dugu; azken batean,

demonstratu dugu ohiko komunikabide handietatik aparte, landulitekeela bestelako komunikazio eredu bat: gertuko, irekia, partehartzailea eta, noski, euskara hutszekoa».

Herri kirolei garrantzia ematea

Aizkolarien eta harri-jasotzaileen saioaren bitartean, Iparraldeko jokoak izango dira eta hauetan ere maila altuko kirolariak ariko dira, lasto altzatzen, ingudeare-

» DATUAK

- **Eguna.** Martxoak 15, igandea.
- **Ordua.** 17:30ean.
- **Lekua.** Asteasuko frontoian.
- **Parte-hartzaileak.** Arrospide, Mendizabal, Magunazelaia...
- **Prezioa.** 6 euro, egunean bertan bakarrik lor daiteke.
- **Probak.** 3 metroko diametroko enborra moztea, 105 kiloko harria altzatzea eta Iparraldeko jokoak.

kin... «Lapazaran eta Tubi adibidez etortzekoak dira». Sarrerak 6 euro balio du, egunean bertan han erosita. Haurrek ez dute ezer ordaindu beharko.

Duela lau urte bost urte, herri kirolei eskainitako tarte bat izaten du astero Txolarrek. Joxe Anjel Sarasola arduratzen da tarte horretaz. *Helduak eta gaztea, eten ez den katea* leloa jartzearen arrazoietakoa bat honakoa da: «Astero herri kirol tarte horretan beti defendatu izan dugu tradizio handiko gure kirol hauek bizirauteko etengabe berri behar direla. Eta helduak, esperientzi handiko horiek dira gainera, izan ditzaketan irakasle onenak».

Igandeko herri kirol jaialdiaren babeslea da Asteasuko Udala. «Es-kerrak eman nahi dizkiegu eskaini diguten laguntza guztiagatik».

Ekitaldi gehiago antolatzen ari da Txolarre. Esaterako, larunbatean Alegiako bertso eskolarekin batera bertso bazkaria antolatu dute. Zubeldia eta Mendiluze ariko dira.



Munduko bazterak ezagutzeko

ALEGIA • Hilabete osoan zehar Alegiako jubilatuen tabernan Mozambike, Peru eta Argentinako jendearen eta paisaien irudiak izango dira ikusgai 18 argazkiren bidez. Arrate Iturbek, Amaia Aramendik eta Ainhoa Arregik egindakoak dira guztiak. Neska hauek herrialde hauek bisitatu dituzte eta bertako detaileak eta koloreak islatu nahi izan dituzte argazkien bidez. Paisai harrigarriak, jendearen bizimodua, ohiturak... Irudian, Mozambikeko haur baten begirada bat. HITZA

Txakolindegira irteera antolatu dute

Baliarrain » Jai Batzordeak apirilaren 4an lotu du bazkaria, Getarian; izen-emate epea igandean bukatuko da.

ERREDAKZIOA

Baliarraingo Jai Batzordeak apirilaren 4rako Getariako Akarregi Txiki txakolindegira irteera antolatu du. Autobusa jarriko dute hara joateko.

Autobusa udaletxearen aurretik

12:00etan abiatuko litzateke eta buelta iluntzerako egingo lukete. Bazkaria izango da Getarian eta izena emateko azken eguna datorren igandea da. Izena emateko 639 967 130 telefono zenbakira deitu behar da (Leire).

Upategiko bazkariaren janaria aurretik kalkulatu dago, hau da, jan behar dena gutxi, gorabehera ordainduta egongo litzateke. Beraz, Jai Batzordekoek eskatu dute izena eman dutenek agertzea, «bestela denen artean ordaindu behar dugu jan ez den hori».

digitala
h
@

Astelehenean, martxoak 16, 16:30ean
KIKE AMONARRIZ
tolosarrarekin elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldekohitza.info webgunean



'Eskola txikiak herri ta auzo, geroaren bila pausorikan pauso'

Berrobi » Ekainaren 14an izango da Eskola Txikien Festa herrian; Pirritx eta Porrotxen emanaldia izango da, besteak beste.

REBEKA CALVO

Berrobiko San Andres eskolak erronka handia du aurrean. Aurtengo Eskola Txikien Festa antolatzeko egokitu zaio, ekainaren 14an izango dena, eta eskolako guraso zein irakasleak buru-belarri ari dira jada lanean jaia egiteko.

«Jaz jaia Zerainen izan zen eta bertan eman ziguten ofizialki lekukoa. Orduztik ari gara pixkanaka-pixkanaka lanean», esan du Malu Agirretxek, lanean aritzeko osatutako Komunikazi Batzordeko kideetako batek. Izan ere, irailean eratu zuten Koordinazio Batzordea eta baita lanerako batzorde

dek ere. «12 guraso ari gara lanean; lantalde bakoitzean bi kide gaude eta hilean behin biltzen gara oraingoz», gaineratu du.

Herriaren parte-hartzea

Oraindik goiz samar bada ere «gauza asko lotu» beharrean daude eta ondorioz, otsailean ere herri bilera bat egin zuten Berrobin eskolako guraso zein irakasleez gain bizilagunei ere laguntza eskatzeko. «Herri txikia gara, eskola txikia, baina festa handia egin behar dugu eta herri guztiaren parte-hartzea behar dugu horretarako. Oso garrantzitsua da herri txikien tzentz eskolak mantentzea eta horregatik urtero herri txiki batean ospatzen da festa. Datorren urtean Altzon izango da», argitu du Agirretxek. Izan ere, Eskola Txikien Festako kantuak dioen moduan *Eskola txikiak, herri ta auzo, geroaren bila pausorikan pauso*.



Iaz Eskola Txikien Festa Zerainen izan zen. JON MUÑOZA/GOIERRIKO HITZA

Eskola Txikien Festako prota-gonistak, noski, txikiak izango dira eta ondorioz, oso gustukoa izango duten egitaraua prestatu dute. «Harrera ekitaldia 10:30ak inguru izango da eta agintari eta inguruko herrietako alkateez gain umeak ere bertan izatea nahi dugu; ondoren jokoak izango ditugu, 26 eskola txiki gara Gipuzkoan eta ume asko gerturatuko direnez gune desberdinak izango dira; bazkaldu aurretik Altzoko eskolari lekukoa pasako diogu eta ondoren, zehaztuta ez badugu ere, txa-

kurren erakustaldia ere izango dugu; frontoian bazkaldu eta gero Pirritx eta Porrotxen emanaldia ikusi ahal izango da. Karaokea, puzgarriak eta jolasak ere egongo dira», argitu du komunikazio arduradunak.

Honekin guztiarekin batera parte-hartze «bereziak» ere izango dituzte: arratsaldean zehar herriko trikitilariak izango dira kale-etan zehar eta harrera ekitaldian, gainera, Xurdineko pertsonaiek ere gerturatuko dira Berrobira. «Sointek produkzio-etxeko ardu-

radunak Berrobikoak dira, Xurdirn umeentzako ikuskizunaren egoizleak, eta gure festan parte-hartze-ko eskaini dira», argitu du. Pertsonaia ezagunak herrian izatearekin batera, umeetako batzuk Pirritx eta Porrotx ikusten dauden bitartean, txikiak Xurdinekoen herri kirolekin gozatzeko aukera ere izango dute.

Laguntza eske

Lana nahiko aurreratua daukate Berrobiko eskolakoek, baina oraindik ere laguntza behar dutela dio Agirretxek. «Guraso batzuk lanerako prest agertu dira, baina egunean bertan egin beharreko lanetan ariko dira, batez ere. Orain behar duguna, batez ere, dirua da. Eskutitz pila bat bidali ditugu inguruan gure burua azaldu eta laguntza eskatzeko, baina ia ez dugu erantzunik jaso, batik bat enpresa eta saltokien eskutik. Egoera ekonomikoa txarra da eta behar bada horregatik izango da», argitu du. Ekarpena egin nahi duenarentzat kontu korronte bat ere ireki dute Kutxan: 2101 0067 26 0012240420.

Aipatu behar da, era berean, Berrobi herri txikia izanda eta autoekin arazorik ez izateko kotxeak herri sarreran jarriko duten aparkalekuan utzi beharko direla eta autobus zerbitzua jarriko dutela festara gerturatzeko.

Ondare izendapena du santuetako batek

Berrobi » Asteburuan lapurtutako irudietatik San Sebastianek bakarrik du Kultura eta Arte Ondare izendapena.

REBEKA CALVO

Koldo Apestegi Gipuzkoako Elizbarrutiko Museoko zuzendaria atzo goizean izan zen Berastegi, Belauntza eta Berrobiko baselizetan pasa den asteburuan lapurtutako hiru santuen irudien inbentarioa egiten.

Apestegik argitutakoaren arabera, ostutako eskulturen artean Berrobiko San Sebastianen irudiak bakarrik du Kultura eta Arte-

Ondare izendapena, baina honek, hala ere, ez dio balio ekonomiko gehiago ematen irudiari. «Eskultura herrikoia besterik ez da, noski balio sentimental handia duela bizilagunentzat, baina ekonomikoki ez du gehiegi balio. Berezia da, hori bai, XVII. mendeko erretroula baten barruan baitzegoen», argitu zuen. Museoko zuzendariak esandakoaren arabera, hiru irudietatik saldu daitekeen bakarra izango litzateke Berrobiko; «besteak egurrezko eskulturek besterik ez dira. Estilo propioa dute, baina ez dute ezer asko balio. Ez dakit nork eta zergatik lapurtu dituen, ulertezina da», gaineratu zuen.

Ertzaintza lapurreta ikertzen ari da oraindik.



Belauntzako San Jose baselizan ere santuaren irudia lapurtu dute. R. CALVO

Laburrak

Berdinketa lortu du Lauburuk Tafallan

IBARRA » Ibarra Lauburu areto-futboleko taldeak Tafallako taldearen aurkako partida izan zuen asteburuan eta bosna egin zuten. Ibarra Jon Garmendiak sartu zuen goletako bat eta Unai Labacak beste lauak.

Kultur Etxea arratsalde irekiko dute ostegunean

IBARRA » Ibarra Benito Izagirre kultur etxeko arduradunek esan dutenez, ostegun honetan arratsalde bakarrak irekiko dute, hau da, 15:30etik 21:00etara. Ostegunean bertan 17:30ean, gainera, Miriam Mendozaren ipuin kontalari emanaldia eskainiko du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

BertsolarHITZA: Altzo Vs. Ibarra

Bertsolaritza » Helduen bertso eskolen arteko txapelketaren bigarren jardunaldia jokatuko dute etzi Altzoko Elordi Elkartearen 20:30ean.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko eta Leiztaldeko BertsolarHITZA Desafioaren bigarren jardunaldia etzi jokatuko dute Altzon. Elordi Elkartearen Altzoko eta Ibarako bertso eskoletako ordezkariak elkartzeko dira 20:30ean. Ohi bezala, afariaren ostean txapelketari ekingo diote.

Altzon egongo diren bertsolariak hauek izango dira: Ibaratik *Atxu*, Aranzegi, Lasa eta *Mixer*. Altzotik Olano, Adur, *Etxorde* eta *Akazi*.

Lehen jardunaldian, iragan osti-

ranean, Alegiak lortu zuen lehen puntua 4 bozkarekin. Ibarako Pototox berriz 0 punturekin aurkitzen da, nahiz eta bozka bat edukiko.

Pototoxten azken aukera

Ibarako helduen bertso eskolak, Pototoxek, finalera iritsi nahi baldin badu Altzon garaipena lortu beharko du. Hala eta guztiz ere, hirugarren eta azken saioko emaitzaren zain egon beharko lukete ibartarrek. Bi talderen artean berdinketa egon ezker, boto kopuruak hartuko lirarteke kontutan.

Altzoren estreinaldia

Talde indartsua osatzen dute Altzoko bertsolariek. Lehen jardunaldian atsenden hartu ondoren, etzi gogotsu joango dira bertso-afarira. Etxean jokatzeko dute eta ikusmin handia sortu du BertsolarHITZA Desafioak Altzon; afari-rako jadanik ez da sarrerarik gelditzen. Txapelketari dagokionez, ostiralean altzotarrek garaipena lortzen baldin badute, zuzenean finalerako sailkatuko lirarteke Alegiaren batera. Ibarak ez baitu saio gehiago edukiko garaipen puntua lortzeko.

8 bertsolari, 5 epaile

BertsolarHITZA Desafioaren arauak lehen saioko berberak izango dira. Alde batetik talde ba-

koitzak lau bertsolari jarriko ditu mikrofonoaren aurrean. Zutik edo eserita kantatu, euren erabakiko dute saioaren hasieran. Ibarren adibidez zutik aritu ziren zortzi bertsolariak.

Epaileei dagokionez, lehen saioan bezala, publiko artetik aukeratu dira. Bost laguni orri txuri bana emango zaie eta bertan, bertsoak entzun ondoren, herri baten izena jarri beharko dute. Bakoi-tzak erabakiko du zeri eman puntua; errimari, umorea, bertsokera...

Finala azkenean Tolosan

Helduen bertso eskolen arteko txapelketaren finala apirilaren 4an, larunbatean, jokatuko da. Hasi-er batean Leiztan aurrekusten

baldin bazen ere, azkenean Tolosan ospatuko da. Lekuari dagokionez, non izango den argi baldin badute ere oraindik elkartearen erantzunaren zain aurkitzen dira antolatzaileak.

Bestalde, finala bertso-afaria beharrean bertso-bazkaria izango da eta ostiralean beharrean larunbatean ospatuko da.

» SAIOAK

BertsolarHITZA Desafioa

■ Etzi, hilak 13.

Altzoko Elordi Elkartearen: Altzo vs. Ibarra.

■ Hilak 27, ostirala.

Alegian: Alegia vs. Altzo.

■ Apirilak 4, larunbata.

Finala Tolosan.



Altzoko taldean Olano, Adur, 'Etxorde' eta 'Akazi' ariko dira lanean. Ibaratik 'Atxu', 'Mixer', Lasa eta Aranzegi joango dira Elordi Elkartera etzi. Bertso-afaria 20:30ean hasiko da. HITZA

'Bloody Sunday' 21:00etan Gaztetxean

Ibarra » Autoeskola Antikapitalistak Irlandari buruzko filma eskainiko du gaur iluntzean Gaztetxean.

A. IMAZ

Ibarako Autoeskola Antikapitalistak *Bloody Sunday* edo *Igande Odoltsua* filma eskainiko du gaur 21:00etan Gaztetxean.

Autoeskola Antikapitalistako kideek hamabostean behin, asteazketan, film bat eskaintzen dute Ibarako Gaztetxean; «kapitalismoaren inguruan izaten dira ikus-entzunezko dokumentu

gehienak. Oraingoan ere horrela izango da, izan ere, munduko herri guztien askatasunak unean uneko sistema ekonomikoarekin harreman zuzena edukiko du».

Irlandaren inguruan

Ibarako taldeak Irlandaren inguruan bi hitz egingo dituzte filma hasi aurretik, «azken gertaerak azalpenak hori merezi dute, komunikabideek zabaldu dutenak zeresana sortu du eta hitzaldi bat baina gehiago horren inguruko tertulia egingo dugu ikuskizunaren aurretik. Horregatik, barnean antikapitalismoa sentitzen duten guztiak gonbidatzen ditugu Gaztetxera».



Irlandako Derry herrian 'Igande Odoltsu'aren omenez AUTOESKOLA ANTIKAPITALISTA

Korrikako produktuak etziko azokan erosteko aukera

A. IMAZ

Korrika 16 hilaren 26an abiatuko baldin bada ere, Leiztan jadanik lanean ari dira kilometroen salmantak, korrika laguntzaileak, batzar-rrak... Horretaz gain, etzi, Leiztan burutzen den ostiraleroko azokan, Korrika 16 ekimenaren inguruko produktuak jarriko dituzte salgai eta azoka amaitzean Torrea Tabernan jarriko dituzte.

Hilaren 26an berriz, Jon Maia-aren Korrikari buruzko dokumentala ikusteko aukera egongo da Peritz Tabernan 19:30ean.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alkiza.** Gizonezkoentzako afaria Sarasola Sagardotegian 18an, Aitaren Eguna dela eta. Izen-ematea Elizegi tabernan. Afalostean mus txapelketa antolatu da Elizegi tabernan afarira joan diren artean.
■ **Tolosa.** Barreterapia eta garapen pertsonaleko ikastaroa martxotik maiatzera: autoestima, adimen emozionala, giza harremanak, barea... Meditazio eta izakiaren psikologia ikastaroa martxotik maiatzera. Informazioa: 943 118669.
■ **Tolosa.** Bihar, emakume batzara abortoarenguz inguruan hitz egiteko 19:30ean Kultur Etxean. Bilgune Feministak deituta.

Jaialdiak

■ **Urkizu.** Maite Franko ipuin kontari ariko da Urkizu auzoan 19:00etan, Ahoz aho jaialdiaren baitan. Bihar, Gorringo taldearen emanaldia Tolosako Sartutasortun (Kale Nagusia) 19:00etan eta Idoia Sanchez ipuin kontari Bonberean 19:00etan.

Kirola

■ **Tolosa.** Hilaren 15erako Zarate-Ubidea (Araba) mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi-elkartek. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5), 943 652789 telefonon edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean.
■ **Tolosa.** San Jose zubirako Tuc de Mulleres eta Besiberri (Aran bailara) irteera antolatu du Oargi mendi-elkartek. Izen-ematea, elkartean.

Erakusketak

■ **Alegia.** Asteartetik igandera bitarte, jubilatuen tabernan hiru herrialdetako argazkiak daude ikusgai: Argentina, Peru eta Mozambike. Gehienbat bertako jendearen argazkiak daude, guztira 18.
■ **Tolosa.** *Sida/Ihesa 8 artista 8 hausnarketa* erakusketak Aranburu Jauregian, Medicus Mundi elkartean hausnarketa, elkartek bekar antolatuta.
■ **Tolosa.** *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketak Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Erosketa txikiak handiak direnean

Tolosa » Igandera arte zabalik egongo da Kultur Etxean Amartz Auzo Elkartekoek antolatu duten Merkatu Txikia.

ERREDAKZIOA

Martxoaren 15era arte zabaldu dute Merkatu Txikia Amartz Auzo Elkarteko kideek. Bertan arropa, altzariak, dekoraziorako materiala, jostailuak, osagarriak... topa daitezke, guztiak prezio onean. Aurten 6.100 euro lortzea dute helburu elkartekoek.

Atzo izan zen lehen eguna eta jende asko hurbildu zen bertara, ilaraluzek sortu zirelarik. Lanearn elkarteko kideak ariko dira egunotan eta «donork lagun» dezakeela jakinarazi dute. Batzuk diote garai txarrak direla gisa honetako ekimenetarako baina, krisiak krisi, jendearn elkartasuna irabaztea espero dute.

Dirua zertarako?

Nikaraguako Leon departamentuko Larreynaga-Malpaisillo udalerriko 8 komunitateen eta Telica udalerriko 3 komunitateen emakumei bidali ohi diete Amartzkoek. Aurtengoan biltzen duten diruarekin, zehazki, 16 emakumeri lagunduko diete.

Emakume hauek guztiak independentzia behar dute euren bizitza garatzeko eta urteetako gizo-



Jende ugari hurbildu zen Kultur Etxera arratsaldeko lehen orduan. I. TERRADILLOS

nezkoen menpekotasunari aurre egiteko. Hala, 16 emakume hauek nekazaritza eta abeltzaintzako goi mailako prestakuntza teknikoak jaso ahal izango dute. Izan ere, oso garrantzitsua da eurentzat ikasketak maila handitu ahal izatea lan munduan eta gizarte mailan bide eta ate berriak irekitzeko.

Tolosatik bideratzen zaien laguntza xumearekin emakume hauek larunbateetan eskoletara

joateko garraioa ordaindu ahal izango dute (kamionetaren erregaia zehazki), baita janaria, ikasketak materiala eta azterketa oftalmologikoak ere. Bost emakumeek, era

berean, betaurrekoak ere eskuratu ahal izango dituzte.

KUTXAn ere ireki dute ekarpenak egiteko kontu bat: 2101 008115 0124410788.

A Agurrak



Urte askoan!

Uxue Muñoa (Irura).
Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

tolosaldeko, leizaldeko eta goierriko

ostalaritza
Gida 2009

Jatetxeak, sagarotegiak, erretegiak eta pintxo tabernak biltzen dituen **gidarik osatuena**

..orain **tolosaldeko-hitza.info**-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuena:
argazkiak, informazio erabilgarria, iragarlearen webgunera link zuzena.

Bilatzaile erabilgarria

Hitza guztien gida **hitza.info**-n

hitza info